

## OSTARKUA<sup>1</sup> ETA MARIA



Ipiñiko dot odeyetan jarri neban neure  
arkua, eta nire eta lurraren arteko  
alkartasunaren ezangarria izango da,  
Genesis-ko IX-en kap-ko 13-en ber.<sup>a</sup>

Izar guztien Erregeak len  
Irago daben tokia,  
Arturik orain ¿zer dakarguzu  
Ostarku arro jagia?  
¿Zer dakarguzu aín apaindurik  
Zazpi kolorez jantzia,  
Eguzkiari aurre aurrean  
Zeiñ andiago jarria,  
Zeu ete zara goi-beietan gaur  
Bietan agintaria?

¿Zer dakarguzu zabalduagaz  
Alde batetik bestera,  
¡O! arku guztiz pozgarrizkoa  
Bandera baten antzera?  
Neurri bagako urdin artetik  
¿Zer dakarguzu lurrera,  
Ango gerrari bildurgarriak,  
Loturik lege batera,  
Ete zatorkuz bake gozo bat  
Guztíoi iragartera?

¿Nondik ta nora sortuten zara  
Ekach burruken artean?  
¿Nolan burua ipinten dozu  
Goiko izarren parean?  
Ta ¿zelan anka luzeok barriz  
Idigi orrenbestean,  
Mendi altuak, ibar zabalak,  
Arturik euren artean,  
Ete nai dozu mundu au bere  
Zapaldutea oiñpean?....

Ez dakit nik zer, nai dozun baña,  
Eltzen zu orren altura,  
Ikusitean, pentsamentu bat  
Etorriten jat burura;  
Ete zarean eskallaren bat  
Igo dagigun Zerura,  
Soñu gozoak, kantu ederrak,  
Entzuten diran lekura,  
Emengo negar danak largauta,  
Betiko Erri dontsura.

(1) Arco iris.

Mutill chikicho nintzan denporan,  
 Urteten ziñanean zu,  
 Zerueratik jasten ziñala  
 Entzun da neban sinistu,  
 Neure laguncho ara joanak  
 Ziranak gozoz asetu,  
 Zure gañetik oi zireala  
 Lur onetara bašatu,  
 Ango pastelak gure artean  
 Egite arren zabaldu.

Zenbat alditan, arku maitea,  
 Nai neban zure azpiti,  
 Iragotea ikuste arren  
 Zer ziñan beste aldeti;  
 Atsegiñ au nik, baña eneban  
 Jarichi eta ez euki,  
 Ezautu neban zuziñeala  
 Nire aldean nagusi,  
 Ordurik ona agaitik deusut  
 Beti chapela erantzi.

Ordutik ona beti zachataz  
 Oso gogoangarria,  
 Gomutetan jat zu ikustean  
 Iñozentien aldia;  
 Urte areetan aiñ neutsun bada  
 Gura izate andia,  
 Gañera uste nik neutsulako  
 Zu ziñeala zubia,  
 Aingeruchoen olgantzetako  
 Tramanku makur jarria.

Onetariko ameschoetan  
 Zoro bat legeche zuri,  
 Egoten nintzan noz aterako  
 Zinean begira zoli,  
 Odei torreak jagitea zan

Beti niretzat pozgarri,  
 Ikuste arren azkenean zu  
 Guztien garaipenlari,  
 Erakusteko zelan on utsa  
 Zinchakon mundu danari.

¡A! badakit nik Jaunak zer eban,  
 Baten zugaitik azaldu,  
 Noeri Berak adierazo  
 Eta zer eutsan agindu;  
 Ak esan eutsan zerua odeiz  
 Egiten beban estaldu,  
 Bere ta gure bitartekotzat  
 Jarriten ziñeala zu,  
 Ez ebalako urez mundurik  
 Barriro egin nai ondatu.

Jarrai egizu zeure lanean,  
 Arku mesedelaria,  
 Atsegiñduaz ichasoetan  
 Larri dabillan ontzia;  
 Trumoi, oñeztu artetik barriz  
 Asten danean arria,  
 Labore-frutak galdu gurarik  
 Berealañe arpegia,  
 Zuk atera ta ¿ez dozu nasai  
 Ipinten nekazaria?

Errazoiagaz, bertsolariak  
 Alabau zaitu egiten,  
 Achurlariak ¡o! zenbat bidar  
 Zaituzan bedeinkatuten,  
 Ichas-gizonak abegi onaz  
 Beti ta beti artuten,  
 Arbolapean zuk noz urtengo  
 Euriaz danak aurkitzen,  
 ¿Ez dau kantetan zu agertzean  
 Bere bidean jarraitzen?

Baita nik uste, inoz izan dot  
 Arku alabagarria,  
 Eta zarean gizon andien  
 Buruko edergarria;  
 Kriaturentzat baña, zu zara  
 Askozaz aziegia,  
 Zarealako Jaungoikoaren  
 Eskuko egiñ andia,  
 ¿Ausaz bazara koroe orde  
 Berak nozbaiten jantzia?

Ez, orrenbeste, auñe zara zu,  
 Kantau nai badot egia,  
 Zu zara bada, Andra andi baten  
 Irudi garbi garbia;  
 Añe dalako zeru ta lurren  
 Arteko bakelaria,  
 Bera dalako Jaungoiko eta  
 Gizonen maitegarria,  
 Bataren Ama, eta bestien  
 Gurasoa dan Maria.

Zure lana da beti poztzea  
 Ekachaznaigabetua,  
 Bete betean zaitu Mariak  
 Irudi berarizkua,  
 Ari bere guk deitzen deitsagu  
 Zuri legeche Ostarkua,  
 Baña zu zara koloreagaz  
 Bakarrik egiñdakua,  
 Bestea barriz eskallara bat  
 Zerura egiazkua.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1893-ko Mayatzean.

